



BARREN

TOKIKOM



75 urte
krosaren elitean



www.lanbi.com

Makina espezialen LAN-BI S.A. enpresak, automozioeko esekidura eta direkzio sistemen diseinu, fabrikazio, hornikuntza eta mantenuan aitzindari internazionala denak, lan taldera honako perfil hauek gehitu nahi ditu.

- PLC/robotika teknikaria
- Ordenagailuko programatzailea/analista
- Sistema informatikoko mantenua
- Automatizazio instalatzailea
- Muntatzaile ajustatzailea
- CNC makinaren prestatzailea

Bezeroarenganako orientazioa eta taldean lan egiteko gaitasuna duten pertsonak bilatzen ditugu. Lan esperientzia eta hizkuntzen jakintza baloratuko da, eta baita bidaiatzeko aukera ere.

Enpresa aitzindari batean integrazioa eskaintzen da, lanbide-garapen eskaintza zabalarekin eta aurkeztutako kurrikulumaren araberrako ordainsiarekin. Hautagaiek beraien datuak bidali ditzakete, interesatuta dauden perfilari erreferentzia eginez, rrhh@lanbi.com helbide elektronikora.

Konfidentzialtasun osoa bermatzen da.

AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioilariak ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasagarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

bidegi.eus





Barren 25 urte



BARRENen sorrera

- Alberto Agirreazaldegui -

A tzo balitz bezala gogoratzen dut. Orduan ez genuen elkar ezagutzen. Aurrerantzean lotura handia sortu zen gure artean. Esku artean genuen erronka ez zen makala, baina ez dakit ohartzen ginen zailtasunaz. Proiektua idazten jardun zuten Maitek eta Jasonek. Ondoren, proiektua bideragarri egiteko pausoak ematen ibili ginen.

Irailean, Elgetan, Arrasateko aldizkariarekin, egin genuen bileraren ondoren, hartu genuen erabaki zailenetakoena: maiztasuna. Astekaria izango zen. Ez zuen erraza ematen, baina herrian eragin sendoa izango bazuen astero-astero iritsi beharko zen etxetara. Bai, astekaria zirudiena astekari bihurtu genuen.

Gero, gizarteko aurkezpenak etorri ziren. Herriko euskaltzaleei eskatu genien iritzia. Ea zer zioten jakin nahi genuen. Aho zabalik entzun zituzten gure azalpenak eta, sinesgaitza bazirudien ere, genuen gogoia eta ilusioa ikusirik, aurrera egiteko oniritzia eman ziguten. Politikariei ere eman genien gure proiektuaren berri. Udaleko talde politiko guztiei azaldu genien, banan-banan, gure asmoen berri. Ez genuen euskaltzaleen kontu bat bihurtu nahi. Herriko komunikabide kolektibo eta parte-hartzailea egin nahi genuen eta horren premiaz jardun genuen denekin. Politikariak ere begi onez ikusi zuten proiektua eta aurrera jarraitu genuen.

Ez genuen ezer ere martxan jartzeko. Ordenagailu eta inpresora bana erosi, elkartearen tokitxo bat egin eta hiru langile hasi ziren lanean inongo lan-ziurtasunik gabe. Zenbat ordu sartu eta zenbat buruko min eman ote zizkigun! Astero-astero alea Oñatiko inprimategira bidali ezinda ibiltzen ginen. Internet aurreko gariak ziren eta disketean eramaten genuen zenbaki bakoitza. Ostiralean, lasaitu ederra hartzen genuen garraiolariak aldizkari guztiak ekartzen zituenean eta etxetara banatutakoan. Orain erraza dirudi, baina astero-astero argitaratzeak miraria zirudien orduan.

Orain dela 25 urte, 1992ko Gabonetan, jaio zen edo "sortu genuen" mundura. Ez zen izan Olenzeroren oparia, nahiz eta 24an Olenzerok utzi gure etxetan. Aurretik erditze lanetan ibili ginen. Ez dakit bederatzita hilabete iraun zuen baina hor nonbait izango zen. Oraindik ez zeukan izenik. Elgoibar eta Barren lotuz elgoiBARREN izena jarri genion. Denborarekin, laburtuz edo, BARREN deitu izan diogu denok.

Dirurik gabe hasi ginen. Diru laguntzak eta iragarkiak lortzeko, erakundeen, enpresen eta dendarien konfiantza lortu beharra genuen. Baina nola erakarri aldizkaria ezagutzen ez

bazuten? Herritarren sinesgarritasuna irabazten hasi ginen piskanaka-piskanaka eta gero errazagoa izan zen. Oraindik gogoan dauzkatz zenbait dendariren eta enpresariren aurpegiak iragarkiak euskaraz izan behar zirela esaten genienean. Nola sinetsiko zuten gure inguruko askorentzat ere sinesgaitza zirudiena!

Hurrengo pauso garrantzitsua eskelak jartzea izan zen. Gure artean ere bazen hau ulertzen ez zuenik. Ez zen diru kontua, aldizkariaren prestigioa baizik. Eskelak serioegiak ziruditen BARRENen azaltzeko, baina, bestalde, non azalduko ziren bada, herriko aldizkarian ez bazen! Azkenean, gure etxeko baten heriotzak bultzatu ninduen lehen pausoa ematera eta, aurrerantzean errazagoa izan zen. Ikusi besterik ez dago gaur egun apenas dagoela asterik BARRENen eskelarik edo hildakoen oroigarriak agertzen ez denik!

Bageneukan beste kezka bat: astero-astero ba ote zegoen zer kontatu Elgoibarren eta Mendaron? Askoren ustetan ezinezkoa zen orrialde guztiak betetzea, baina denborak erakutsi du tokia faltan izaten dela kontatu nahi den guztia kontatzeko. Orain ere tokia mugatua denez amaitu beharrean nago.

BARRENen jaiotzarekin zeresanik izan badut ere, ez dut inoiz nire umea dela esateko tentaziorik izan. BARREN auzolanean sortu genuen eta asko izan dira ibilbide osoan parte hartu duten pertsonak. Nik esango nuke ez dudala ezagutzen Elgoibar eta Mendaro artean halako proiektu parte-hartzaileak. Auzolan hitza asko erabiltzen dugu, baina auzolaneko proiektu honetaz harro egon beharra daukagu guztiok. Zorionak bada BARREN egiten lagundu duzuen guztioi eta beste horrenbeste urte barru urrezko ezteiak ospatu ditzagula.

Hasierako lantaldea. Goian, Amaia Leiaristi eta Ainhoa Lodoso. Behean, Alberto Agirreazaldegui, Maite Rementeria eta Itziar Agirregomezkorta.



ANA ALBERDI

Kazetaria



Etika, airean (galduta)

rako, beharrezkoak dira garden-tasuna, zintzotasuna eta batez ere, objektibotasuna. Txanponaren aurpegi bakarra erakustearekin, ez da nahikoa.

Kode deontologikoaren mugak ordea, erraz apurtu daitezke. Etiko ez izateak, ez du ilegala izatea esan nahi, eta ondorioz, etika falta ez da delitu. Kazetari edo hedabide baten hautua baizik. Legearekin baino, kontzientziarekin du lotura estuagoa. Edo profesio-arekiko konpromisoarekin, agian. Baina bizi garen berehalakotasunaren eta primiziaren munduan, zintzoa izateak, badirudi, ez duela balio handirik. Emaizta da garrantzitsua, ikusleentzat, albiste freskoa izatea. Eta gehiengoak, ikusle modura, egiazkotasunaren bermeari uko egiten dio, berehalakotasunaren truke.

Informazioaren eta desinformazioaren artean dago gakoa. Baina baita, herritarrok kontsumitu nahi dugunaren eta nahi ez dugunaren artean ere. Legalitatea eta alegialitatea bereizten dituen marra ia ikus ezinaren antzera, kazetari-tzak derrigor beharko lukeen etika ere desagertzeko zorian ote dago?

Herritar orok iritzi kritikoa eraikitzeko eskubidea duen bezala, hedabideek modu garbi eta objektiboan informatzeko obligazioa dute. Esango nuke, kazetariok ez garela iritzi sortzaileak izan behar, pertsona orok iritzi kritikoa garatu ahal izateko zubia baizik. Eta horretarako,

Zorionez, informatzeko modu horrekin kritiko denik ere badago.

Eta hausnarketa honek batxilergoko matematikako irakaslearen pentsatzera nararama. Askorentzat zentzugabekoa izan daiteke, baina albiste batek eta matematikako ekuazio batek uste baino lotura estuagoa izan dezakete. Gure irakasleak, kalkulagailuarekin lortutako eragiketen emaitzak, nahiz eta zuzenak izan, ez zituen ontzat hartzen. Bere esanetan, emaitza ez baita inoiz baliozkoa, aurretik prozedura eta pauso egokiak eman ez baldin badira.

Bidezidorrek, beti lagatzen baituzte hari-muturrak solte.

“Etiko ez izateak, ez du ilegala izatea esan nahi, eta ondorioz, etika falta ez da delitu”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkadi Lehenen Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eduarne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBARKO UDALA



LAGUNTZAILEAK:



MENDAKERO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

San Lazaro Egoitzaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu, urtean zehar ekitaldiak, jaiak... antolatzen laguntzen diguten pertsona, talde eta erakunde guztiei.

Elgoibarko Nagusilan elkarteko boluntarioek, urte osoan zehar, egiten duten lan ordainezina eta eskuzabala azpimarratu nahi genuke, baita hainbat elkartek gure egoiliarrekin izan duten bihotz-zabaltasuna ere. Berezi, ondorengoak aipatu nahiko genituzke: Udal Musika Banda, I. Bereziartua Musika Eskola, Gaztelekua, Ludoteka, Argia Taldea, Parrokiako Abesbatza, Elgoibarko Izarra, Aire Andaluz taldea, Elgojaio-tza, San Bartolome Parrokia, Meka Lanbide Eskola eta Elgoibarko Katekista taldea. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu, sarri askotan, bakarka eta isilpean egoitzarekin elkarlanean diharduten beste hainbati. Gure esker ona guztiei.

San Lazaro Egoitza

► PREST GAUDE

Lelo honekin antolatu du SAREK manifestazio nazionala urtarrilaren 13rako Bilbon. Askotan aipatu dugun arren, gogoratu behar da sei urte pasa direla ETAK borroka armatua utzi zuenetik; apirilean urtebete etorriko dela arma guztiak entregatu zituela. Baina espainiar eta frantziar estatuek salbuespeneko politikekin jarraitzen dute espetxeetan dauden euskal presoekin. Preso gaixoak espetxeetan mantentzen dituzte ia hil arte (hor dago Ibon Iparagirre; ez da bakarra, beste 14 dira egoera larrian aurkitzen direnak); dispersioa eta sakabanatzea areagotu egin da azken urteetan; adineko presoak espetxean mantentzen dituzte (hor dago Sebas Etxaniz elgoibartarra, 74 urterekin preso); legeak ematen dituen aukerak (zigorraren 2/3ak betetzen direnean behin behineko askatasuna, adibidez) espresuki ukatu egiten zaizkie euskal presoek, nahiz eta egoerak oso larriak izan, Sara Majarenasen kasuan bezala; eta abar. Frantziar estatuan interlokuzio bide bat zabaldu da hango gobernuarekin, eta espero dezagun bere fruituak ematea.

Espainiar,aldiz, egoera bere horretan mantendu baino, okertu egin da. Espainiar estatua mugiarazteko indarrak bildu behar ditugu. Euskal presoek legea bere horretan aplikatzea besterik ez gara eskatzen ari. Eta euskal gizartearen gehiengo nabarmena horren alde dagoela seguru gaude.

Manifestazioa La Casillan hasiko da arratsaldeko 17:30ean. Elgoibartik autobusak 16:00etan irtingo dira Txankakuako geltokitik. Izenak ematea Jai-Alai eta Iturri tabernan egin ahal izango da. Bukatzeko, lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu Gabon Zahar ferian Talo Solidarioa antolatu eta lagundu zuten guztiei. Giro paregabea izan zen goiz guztia bertan, eta autobusak merkatzeko dirua batzea posible izan zen.

Sare Elgoibar

► HIRIA (BETI) KUTSAKORRA

Urte bukaera garai ona omen dute batzuek auto zaharra alde batera lagatzeko, eta berria erosteko. Sasoi horretan aukera egokiak egon ohi baitira bestelako hautua egiteko. Halarik ere, beti ez da erraza hautu ona egitea, nahiz eta batzuek sekulako matikulazio kanpaina egin (155), komunikabideetan aldeko propaganda egiteko aukera izan (PSC, PP, CECP), eta erabiltzaileei modu erosoan erosteko abantailak eman (lau ordu). Izan ere, oraingoan ere, gutxietsi, zokoratu nahi izan dute besteen kolorearen horia garajeen, norabide bakarrekoren aldeko gehienek emaitza kaskarrak lortu arren. Dena den, hirietan Ciudadansek oso emaitza onak izan ditu. Hauek hibridoaz baliatu dira produktua saltzeko, eta horrek jende anitz animatu du trafiko handiko lekuetan eroso egoten, autogobernuaren aldekoak (JPC ERC CUP) arrimatzeko, eta Arrimadas bezalako gidari bat protagonismoa izaten, epe motzean, behintzat. Gainera, hamaika elebakarrek aukera oso ona ikusi dute arerioaren gerrikoa estutzeko, eta Espainia-Katalunia-Europaren aldeko norabidean gidatzeko. Horregatik, merkatarien lehia honetan bertakoek ez dute erraz

izango borondatezko hautua egiten, hiria beti kutsakorra baita. Bestalde, batzuek ez dira inoiz jabetuko egindako prestazioetan alde handia dagoela modelo batetik bestera, eta batzuek beldurra zabaldu bitartean, besteek *endavant* (aurrera) egiteko aire garbiaren aldeko hautua egin dutela. Eskerrik asko, Katalunia.

Juan Luis Mugertza

► 120 MILA ESKER!

Giro bikainarekin esan diogu aurten ere agur urteari. Gabon Zahar ferian hainbat postu, produktu eta animaliaz gozatzeko aukera izan genuen. Eta aurten ere, Elgoibar Ikastolatik Nafarroa plazan txosna jartzeko aukera izan genuen. Eguraldia aparta izan zen, giroa zer esanik ez. Pozik gaude egindako lanarekin. Eskerrak emateko garaia da. Eskerrik asko Elgoibarko Udalari, Debemen Landa Garapen Elkarteari eta Debabarrenako Mankomunitateari hainbat baliabide eskaintzeagatik. Eskerrik asko Armueta eta Ziarda harategieri eusko labeldun saihetsa eskaintzeagatik. Eroskiri salda egiteko bertako produktuak eskaintzeagatik. Manuel Amaro, kamioia eskuragarri jarri eta egunean bertan zein aurretik egindako lanagatik. Beristain Logistika banaketak eta Bernardo Ecenarro, edari zein beste material batzuek eskaintzeagatik. Eta nola ez, mila esker egunean bertan gerturatu zineten guztioi. Girorik ez da zuek gabe. Baina, aurten bereziki pozik gaude. 120 baino gehiago izan gara antolaketa eta lanean aritu garen ikastolako guraso eta langileak. Izandako parte-hartzearekin arro gaude. 120 mila esker eta bejondeizuela! Azkenik, gogoraraztea besterik ez zaigu gelditzen. Txosnarekin jasotako dirua herri mailan antolatzen ditugun ekimenak finantzatzera bideratuko da; Pilota eguna eta Jose Gurrutxaga krosa alegia. Bere izaerari jarraituz; herritik, herriarentzat.

Ikastolako Gabon Zahar Txosnaren antolatzaile taldea

Errefusaren edukiontzi berriei buruzko informazioa emango dute Elgoibarren eta Mendaron



Hondakin bilketa sistema berria jarriko du martxan urtarrilean Debabarrenako Mankomunitateak Elgoibarren eta Mendaron. Orain arte hondakin organikoekin egiten zen bezala, orain errefusarentzat txartel bidez irekiko diren itxitura elektronikodun edukiontzi gris berriak ipiniko dituzte.

Organikoaren edukiontzietarako txartela dutenak errefusarena berberarekin ireki ahal izango dute. Baina gainontzekoek Elgoibarren, Kultur Etxeko sotoan, urtarrilaren 18ra arte, egongo den informazio puntuan eskatu ahal izango dituzte txartela eta beharrezko materialak (edukiontzi aireztatua, poltsa konpostagarriak eta informazio liburuxka), baita bilketari buruzko azalpenak ere. Mendaron, berriaz, urtarrilaren 25etik 30era bitartean jarriko dute bulegoa Lagun Betikoak erretiratuen elkarte aldameneko lokalean. Bulegoko ordutegia honako hau izango da: astelehenetik barixakura 11:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 9:00etatik 14:00etara izango da.

Informazio puntura joaten direnek ez ezik, materia organikoaren edukiontzia erabiltzen duten bizilagunek jasoko dute informazio gutuna etxeetan eta izena eman ez dutenei gonbitea egingo diete gaikako bilketan parte hartzeko informazio bulegotik pasatzeko. Dagoeneko organikorako txartela duenak, txartel bera erabiliko du edukiontzi grisa irekitzeko, beraz, ez dute informazio bulegotik pasa behar.

Europako maila gainditu

Debabarrenako Mankomunitateak Europak ezarritako birziklapen maila gainditzeko helburuarekin jarriko ditu edukiontzi gris berriak Debabarreneko hainbat herritan, tartean Elgoibarren eta Mendaron. 2020rako %50eko birziklapen tasa gainditu nahi dute.

Gainontzeko gaikako bilketarako erabiltzen diren edukiontziak (beira, ontzi arinak eta papera eta kartoia) irekita jarraituko dute.

Informazio gehiagorako, Mankomunitateak ondoko doako telefono zenbakia du eskuragarri 900 10 49 23.

Sendi Anaitasuna elkarteak urteko batzarra egingo du

Mendaroko Sendi Anaitasunak urteroko batzarra egingo du urtarrilaren 21ean Azpilikuetakoz elizan. 11:00etan izango da, meza aurretik, Mendaroko mezen ordu al-daketa dela-eta. Bilerara joaten ez diren bazkideek 10 euroko isuna ordaindu behar dute. Bestalde, elkartearen izena eman nahi dutenak zuzendaritza batzordeko edozeinek harremanetan jarri behar dira.

Ingeles mintzapraktika Udal liburutegian

Ikasturte hasieratik, barixaku arratsaldeetan, 18:00etan abiatuta, ingeles, frantses eta alemanierako mintzapraktika saioak izaten dira dinamizatzaileekin Gotzon Garate Udal Liburutegian. Frantseseko eta alemanierako taldeak osatuta badaude ere, ingelesko bi taldeetan erdi eta goi maila badaude oraindik hainbat lagunentzako tokiak. Beraz, norbaitek izena eman nahi badu liburutegira bertara joan edo 943743525 telefono zenbakira deitu dezake.

Unai Villena eta Nagore Dorronsoro Soro feriako ezti lehiaketan irabazle

Urtarrilaren 6an izan zen urteko ohiturari jarraituz, Debako Soro Feria. Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, beraien produktuak bertan erakutsi eta salgai jarri zituzten artean hainbat sari banatu zituzten antolatzailleek. Euriarekin pozik ez baina ezti atalean 150 euroko saria eskuratuta gustura izan ziren Unai Villena elgoibartarra eta Nagore Dorronsoro debarra. Feria berean gaztagileentzako ere egon zen saririk eta Mausitxa baserriko Jesus Ansolak 250 euroko hirugarren saria jaso zuen.

Liburutegiari buruzko iritziak jasotzeko galdeketa egingo du Jaikik

Jaiki gazte taldeak aurtengo kanpaina jarri berri du abian eta horren baitan lehen pausoa herriko liburutegiaren baldintzen hobekuntza bilatzea da. Jaikiko kideen esanetan, "Elgoibarko ikasleok (eta ikasle ez garenok) beharra dugu baldintza egokidun liburutegi bat izateko. Gaur egun betetzen ez diren baldintzak: zaratak, ordutegia oso mugatua izateak, egutegiak, erosotasun faltak... beste herri edo leku batzuetara jotzera behartzen baitu jendea".

Hobekuntzen zain geratu gabe eraldaketak beren esku hartzea erabaki dute eta epe laburrean konponbideak martxan jartzeko da beren asmoa, "Elgoibarko gazteok ikasteko leku duin bat izan dezagun".

Horretarako, herriko gazteek liburutegiari buruz duten iritzia jaso nahi dute, hortik abiatuta konponbideak martxan jartzeko. Beraz, sare sozialetan galdeketa bat zabaldu dute herritarrek betetzeko. Besteak beste, galdetegia barren.eus webguneko komunitatean Jaikik duen tartean bete daiteke galdeketa.

'Sororitatea lantzen' irakurketa saioak egingo dituzte Mendaron hamabostean behin

Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak, *Sororitatea lantzen* izenburupean irakurketa saioak antolatu ditu. Hamabostean behin liburutegian elkartu eta *Ponte en mi lugar* liburuaren zati berdina irakurrita hausnartuko dute bakoitza zerk harritu, kezkatu zein emozionatu duen edo zerk pentsarazi dion. Bakoitzak momentu bati emango dio garrantzia eta errealitate berdina modu ezberdinean bizi daitekeela ikustea da asmoa. Edurne Izagirrerren gidaritzapean saioak liburutegian izango dira 19:00etatik 20:00etara bitartean. Egunak honakoak dira: urtarrilak 17 eta 31, otsailak 14 eta 28; eta martxoak 14. Izena emateko gaur, urtarrilaren 12a, da azken eguna, liburutegian bertan edo mendarotratuon.blogspot.com helbidean.

'Aldenik Alden' programak urte osoan antolatuko ditu ekintzak umeekin adostuta

Aldenik Alden (LH4-6) programak urte osoan antolatuko ditu ekintzak hemendik aurrera eta ekintzok umeekin batera adostuko dituzte. Hasteko, baina, Atxutxiamaiak eta Ludotekak elkarlanean egin dute irteera proposamena urtarrilaren 17rako. Goiza Rocopolis abentura parkean pasatuko dute eta arratsaldean Iruñean. Prezioa 15 eurokoa da (Elgoibarko Izarra eta Ludotekako bazkideek 13 euro). Urtarrilaren 20an asanblada egingo dute hurrengo ekintzaren nondik norakoak erabakitzeko, 17:00etan, Ludotekan; otsailaren 3an arratsalde pasa. Prezioa: 5 euro (Elgoibarko Izarra eta Ludotekako bazkideek 4 euro). Urtarrilaren 14ra arte izango da izena emateko epea, Elgoibarko Izarraren bulegoan edo Ludotekan.

Gabonetako zozketen emaitzak

Gabonetako jaien harira hainbat zozketa egin dira Elgoibarren. Hona hemen horietako biren emaitzak.

Txankakua Merkatari Elkarteak

Txartelaren jabeek otsailaren 9ra arteko epea izango dute zenbaki irabazleak aurkezteko. Ondoren, jasotako bonoak Txankakuako kide diren dendetan gastatu beharko dituzte saridunek.

500 euro

27.585 (Ordezkoa 47.021)

78.145 (Ordezkoa 84.894)

100 euro

89.990 (Ordezkoa 22.340)

55.939 (Ordezkoa 67.934)

31.374 (Ordezkoa 62.316)

41.074 (Ordezkoa 93.764)

60.134 (Ordezkoa 83.585)

72.927 (Ordezkoa 74.274)

71.451 (Ordezkoa 29.024)

30.869 (Ordezkoa 97.448)

C.D. Elgoibar



Otarra eta 400euro: Pilar Salegi.



Otarra eta 200euro: Julen Etxeberria.

75 urte krosaren elitean

Juan Muguerza Nazioarteko Krosak IAAF egutegiaren barruan ospatuko du krosaren 75. urteurrena, domekan. Alegia, munduko zazpi kros lasterketa onenen artean, krosen "Txapeldunen Ligan" egongo da, beste behin ere. 2015ean eta 2016an ere egon zen krosaren elitean, 11.000 biztanle pasatxoko herrian antolatzen den krosa. Hamazazpigarren urtez proba antolatuko duen Mintxeta Atletismo Taldeari eta makina bat herritarren borondatezko lanari zor zaio merito hori, gaur egun. Goraipatzekoa dena, baina, Mugertza krosa 75 urtean etenik gabe antolatu izana da. C.D. Elgoibarrek antolatu zuen estreinakoz 1943. urtean eta Ego Toki atletismo elkarteak hartu zion erreleboa antolakuntzan, 1963tik 1993ra bitartean.

- ASIER ORBEA -



Eguaztenean aurkeztu zuten krosa udaletxean, eta leku berean egingo diete atletei ongi-etorri ofiziala, zapatuan, 19:30ean.

75 urtean antolatzaileek, atletek eta herritarrek Mugertza krosaren alde egin duten lanari esker ona adierazteko antolatu dute gaurko (urtarrilak 12), Krosaren 75. urteurreneko Gala. 20:00etan izango da Herriko Antzokian. Debalde izango da, herritarrez bete nahi baitute antzokia. "Herriari eskerrak eman nahi dizkiogu gala honen bitartez, herritarren laguntzarik gabe ez ginatekeelako 75 urte betetzera ailegatuko. Babesleak eta erakundeak ere funtsezkoak izan dira eta horiek ere jasoko dute merezi duten errekonozimendua", aurreratu dute antolatzaileek. Urteurreneko ospakizunez arduratzen ari den lantaldeak 75 urteotako irudiak, ezustekoak eta Mugertza kroseko txapeldun ohiak iragarri ditu galarako. Besteak beste, Mariano Haro, Lucas Larraza, Benito Alday, Ana Isabel Alonso, Coro Fuentes, Antonio Serrano, Antonio Prieto, Alejandro Gómez, Carmen Valero, John Ngugi, Ezequiel Canario, Montserrat Abelló edo Pilar Fernandez dira etorriko direla baieztatu duten etariko txapeldun batzuek. Belen Azpeitia zenaren senideek ere hartuko dute parte. Krosa irabazi-

takoak diren beste bi atleta, Eamonn Martin eta Amelia Lorza, zapatuan ailegatuko dira Elgoibarrera. Era berean, Elgoibarrera etorri ezin izan duten zenbait txapeldunek bidez bidali dituzten agurrak emango dituzte Herriko Antzokiko zine pantailan. Lakie Stewart da horietako bat, Mugertza krosa hiru alditan (1969, 1970, 1972) irabazi zuen eskoziarra ezin izango da Elgoibarrera etorri osasun arazoak direla-eta. Alabaina, bere semeak egini bost minutuko elkarriketa eskainiko dute. Txapeldun andana batuko dutenez, Urrezko Liburuaren oparitu dute orain arte jaso ez dutenei. Mugertza krosa irabazi duten lagunaren argazkiak eta horiek idatzita laga zituzten testigantzak jaso ditu Urrezko Liburuak. 2013az geroztik Urrezko Liburuaren erreplika eman diete kroseko senior probetako irabazleei.

ETBREN DOKUMENTALAREN ESTREINALDIA

Antxintxikari mitikoak oholta ganean ikusteko aukeraz gainera, Herriko Antzokiko pantaila handian ere ikusi ahal izango



dira horietako batzuek Lerunen zein Mintxetan eginiko kirol balentriak, Euskal Telebistak Mugertza krosari buruz osatu duen dokumentala estreinatuko baitute galan. Orduerdi inguruko iraupena izango du. ETBk lasterketa jokatu aurretik, domeka goizean, emittitzeko asmoa du.

Zigor Diezek aurreratu duenez, sekula baino atleta gehiagok hartuko du parte aurtengo krosean, 900 lagun inguruk hamar las-

terketetan. 10:00etan hasiko da lehena. Mamo Wolde Gipuzkoa sariaren 16. edizioan ere inoiz baino herrialde gehiagotako ordezkariak egongo dira, Ingalaterra, Frantzia, Italia, Belgika eta Portugalgo atletak espero baitituzte Espainiako Autonomia Erki-dego guztietako Kanariar Uharteetakoak izan ezik- atletekin batera. Senior mailako atleta esanguratsuenak eta bakoitzaren kirol lorpenak hurrengo orrialdean ikus ditzakezue.

'Gazelen Hatsa', krosaren historia, testigantzak eta irudia batzen dituen liburua

Mugertza krosari buruzko liburua aurkeztu zuten eguaztenean: *Gazelen Hatsa*. Liburuak bi zati ditu, ongi bereziak. Batean, Eduardo Arrillaga argazkilaria elgoibartarrak 1993tik iaz arte krosean ateratako argazkien aukeraketa dago. Krosa Lerunetik Mintxetara lekuz aldatu zutenean hasi zen Arrillaga han argazkiak ateratzen. "Mintxeta kirol guneko azpiegiturak bukatzeke zeudenean hasi nintzen, eta sasoi hartan Gurutze Gorriko kide moduan joaten nintzen, erreturietan boluntarioek egiten duten lanaren ikuspuntua jasotzen nuen, batik bat, lehen urteetan. Hasieran ez bainuen argazkiokin liburuak ateratzeko asmorik. Gero konturatu nintzen krosaren inguruan lan polit bat egiteko lehengaiak zaudela", azaldu du Arrillagak. Ikuspuntu artistiko batetik ateratako argazkiak dira eta atletez gainera, zaileak, antolatzaileak eta Gurutze Gorriko kideak ere badira argazkietako protagonista.

Liburuaren bigarren zatian, berriz, krosaren historiari egiten zaio errepaso, protagonisten ahotik eta lumatik. Izan ere, krosaren inguruko dokumentazio handia dagoela azaldu dute Mintxetakoek. "Inon argitaratu gabeko hainbat argazki harrigarri, atletek idatzitako eskutitzak eta elkarrizketa asko topatu ditugu artxiboetan, Juan Mugertza berari garaiko egunkari batean eginiko

elkarrizketa bat, esaterako. Horiekin krosaren historia jaso nahi izan dugu, baina oso modu ezberdinean. Gainera, Mugertza krosak dituen balioak: elkarlana, boluntarioen lana, herritarren abegikortasuna, enpresen inplikazioa... goraiatu ditu liburuak", azaldu dute Mintxetako kideek. Artxiboko edukiez gainera, libururako propio idatzitako testuak ere jaso dituzte, hala nola, Mamo Wolderen senideek idatzitakoa, 40 urtean Elgoibarrera etorri zen Alan Warner entrenatzaile ingelesarena edota Juan Mari Iriondo, Koldo Lizarralde eta Aitor Zabala elgoibartarren iritzi artikulua, besteak beste.

Domekan salgai jarriko dute liburua Mintxetan. Otsailan, berriz, liburuan jasota dauden hainbat argazki Kultur Etxean egingo duten erakusketan ikusteko aukera izango da.



Julian Azkue, Juan Mari Iriondo, Zigor Diez eta Eduardo Arrillaga.

DOMEKAN KONTUAN HARTZEKO SALTAKARIAK



LEONARD KOMON

(Kenya, 1988)

- ◆ 2008, 2010 eta 2011n Mugertza Kroseko irabazlea.
- ◆ 2017ko Munduko Kross Txapelketan, Ugandan, 12. postua.



CONSESLUS KIPRUTO

(Kenya, 1994)

- ◆ 2013ko Mugertza kroseko irabazlea.
- ◆ 3.000 metroko oztopo-lasterketan Txapeldun Olimpikoa Rio de Janeiron.
- ◆ 3.000 metroko oztopo-lasterketetan bi aldiz munduko txapeldunordea eta 2017an, Londresen, munduko txapel-duna.



TIMOTHY TOROITICH

(Uganda, 1991)


- ◆ 2014ko Juan Muguerza Nazioarteko Krosa irabazi zuen.
- ◆ 2017an 9. postua bere herrialdean, Ugandan, jokatu zen Munduko Kros Txapelketan.
- ◆ 2018ko Amorebietako krosa irabazi du.



HABADI ADIS

(Etiopia, 1997)

- ◆ 2017an brontzeko domina eskuratu zuen Ugandako Munduko Kros Txapelketan.
- ◆ 7. denborarik onena 10.000 metroko lasterketan.
- ◆ 7. postua Munduko Atletismo Txapelketan, 10.000 metroko lasterketan, Londresen.



RUTH JEBET

(Bahrain, 1996)

- ◆ 3.000 metroko oztopo-lasterketan Txapeldun Olimpikoa 2016ko Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan.
- ◆ Munduko errekorra du 3.000 metroko oztopo-proban.
- ◆ 7. postua 2017ko Munduko Kros Txapelketan.
- ◆ Txapeldunorde Elgoibarren, 2017an.



LILIAN KASAIT RENGERUK

(Kenya, 1997)

- ◆ Munduko Kros Txapelketan brontzeko domina 2017an.
- ◆ Campaccioko kroseko irabazlea Italian, 2018an.
- ◆ 8. denborarik onena 2017an 5.000 metroko distantziako lasterketan.



LETESENBET GIDEY

(Etiopia, 1998)

- ◆ 2017an Londresen jokatu zen Munduko Atletismo Txapelketan finalera heldu zen 5.000 metroko lasterketan.
- ◆ 2015ean eta 2017an Munduko kros txapeldun, juniorretan.
- ◆ 7. denborarik onena 2017an 5.000 metroko distantziako lasterketan.



TRIHAS GEBRE

(Euskal Herria, 1990)

- ◆ 2016an eta 2017an Espainiako kros txapelduna.
- ◆ 2017an 13. postua Europako Kros Txapelketan.
- ◆ 2015an 15. egin zuen Munduko Kros Txapelketan.



Neska elgoibartarrak Lerunen antxixika

Ez dago igarlea izan beharrik neskek eta mutilek ez dutela kirola neurri berean, ez modu berean egiten konturatzeko. Baina Mugertza krosetan emakumeek ere hartzen dute parte eta aurrekariak ere badi-tuztela jakinarazi digute Lerunen garai batean parte hartutako hainbat emakume elgoibartarrak.

1965-66 urtean mutilen talde bat antxixika hasi zela eta herriko hainbat neskek beste bat osatzera animatu ziren. Besteak beste Begoña Alonso, Maite Unzueta, Maria Jose Arakistain, Isabel Etxaniz, Lurdes Luko, Maria Angeles Alkorta,

Izaskun Azpitarte, Maria Jesus Bilbao, Gurutze Garcia, Arrate Diego eta Maria Antonia Artetxe zeuden taldean. Korrika ez ezik atletismoko bestelako probak ere egiten zituzten, luzeera jauzia, esaterako. Elgoibarko krosetan ez ezik Donostian, Arrasaten, Zarautzen... ere parte hartzen zuten eta horretarako entrenatu beharra izaten zen, noski. "Astean bi aldiz joaten ginen entrenatzera Fernando Uriarterekin eta Jose Gurrutxagarekin eta noiz edo noiz Anoetara ere eraman gintuzten entrenatzera. Berdin zen euri, elur zein txingorra egin gu beti joaten ginen entrenamenduetara hutsik egin gabe", kontatu digu orduko taldekide Arrate Diegok. Gogoan du baita ere entrenatzeko eman zieten txandala ere, "gorria, zerrenda zuri batekin. Denok harekin entrenatzen genuen, probetarako, ordea, bakoitzak nahi zuen arropa erabiltzen zuen, hori bai, baina praktika motzetan denok".



Lerunen, Mugerza krosetako irteerako lerroan, tartean elgoibartarrak.



Arrate Diego, Mamo Wolde eta entrenatzailea.

KORRIKALARI EZAGUNEKIN

Elgoibarko krosa zen antxixika egiten zuten luzeena eta korrika egin zuten lehen aldia Maria Antonia Artetxe elgoibartarrak irabazi zuela esan digu Arrate Diegok. "Lasterketetan garaikur asko jaso zituen, taldean gehien nabarmentzen zen, taldeko izarra zen bera, gazela bat. Mamo Wolderekin ere entrenatu zuen noiz edo noiz".

Proba haietako giro polita du gogoan. "Hasi ginenean neskek eta herri bertakoak korrika ikustea ez zen ohikoa eta jasotzen genituen animoekin gustura aritzen ginen. Krosaren ondoren Ego Tokira joaten ginen korrikalari famatuekin Mamo Wolde, Mariano Haro... Jende asko ezagutu genuen. Gainera nik Mariano Harorekin harremana izaten jarraitu nuen nire koinataren herriko alkate baitzen eta Elgoibarko Krosetako kontuak gogoratzen genituen".

Taldeko neskek 13-18 urte bitartean egin zuten korrika gutxi gorabehera. baina ez askoz gehiago ere, pixkanaka utzi egin zuten. "Orain emakume askok egiten du korrika, baina orduko haietatik inork ez dugu jarraitu, orduan utzi eta ez genion berriz heldu. Hala ere, korrikarako zaletasunak elkartu gintuen eta oraindik harremana izaten jarraitzen dugu batzuk".

Lerunen bide-urratzaile izan ziren eta gaur egun Mintxetako lurretan korrikalariak krosetan ikusten dituztenean gustatzen zaie gogoratzea beraiek ere proba hartan parte hartu zutela. Urteurren berezian ere oroitu dute.

Eguberriei errepasoa ElgoibarErregeen







100 urte, eta sasoi beteko

Felisa eta Flora Etxabe Egibar ahizpa bikiek 100 urte bete zituzten urtarrilaren 6an, Errege egunez. Lotura estua izan dute sortze beretik, eta elkarrekin ospatu zuten ehungarren urtebetetzea ere, Azkoitian. Ospakizunerako hamabost bat egun falta zirela hartu gintuen Felisak etxean, eta orduko kontuak ekarri ditugu hona, senitartekoez ospakizun egunean egin zieten argazkiak lagunduta.

- AINARA ARGOITIA -

Errege egunez ekarri zituen amak mundura eta Errege margoen oparia izan zirela dio berak, Azkoitiko berbeta garbian. "Gerra ezkerre kanpoan nabil ni, baina hitzik ere ez zait kanbiatu! Azkoitiarra naiz, *de pura cepa* esaten dena", dio harro. Aitaren botan eta amaren zapatan utzi ei zituzten erregeek, eta pena bakarria ei du: amari galdetu ez izana zein laga zuten botan eta zein zapatan. "Biotatik neu naiz, baina, munduan zaharragoa", bota du segidan. Zortzi seme-alaba izan zituen haien amak, eta tartean, bi bikialdi "Lehen, umea besterik ez zen ekartzeko!". Zortzitik bost umek egin zuten aurrera, eta gaur, Felisa eta Flora bakarrik bizi dira. Hitz jario dotorea eta begirada bizia ditugure gaurko protagonistak, Felisak. Berezkoak ditu elegantzia eta grazia. "Igual-igualak izan gara", dio berak ahizpaz. Baietz diote ingurukoek.

Egongela bete lagun ditu begira, bat ez beste guztiak etxe-koak. Aurkeztu ditu alaba, biloba eta haiek altzoan hartuta dituzten bi birbiloba txikiak, eta desenkusatu zaio kazetariari. "Ez dut entzuten; hauei ere ez, baina ez nahi ez dudalako. Gauzak errepikatzen hasteko orduan sartuta nago. Horrek [alabak] telefonoa poltsikoan erabiltzeko esaten dit, baina berak deitzen didanean ez da askotan poltsikoan fortunatzen". 100 urte betetzear delagogorarazi diote etxe-koek, ia zer nahi duen. Ez dio, baina, meritua iristen 100 urte betetzeari. "Bikiak gara, eta biok iristeko ematen dit neri poza. Berezia hori da". Azkoitian bizi du ahizpa

Flora. "Berdin-berdinak izan gara gu. Nik kokotsa luzeagoa daukadala eta Florak biribilagoa, bestela hortzak ere berdinak. Gerra artean igual-igual jantzita ibiltzen ginen". Gerra. Sarri aipatu du solasaldian zehar, eta ez alferrik. Izan ere, beste askori bezala, kolpetik zaildu zion bizimodua 36ko gerrak. "Neuk bakarrik dakit zertzuk pasatu nituen".

Gerrak banandu zituen lehenengoz Flora eta Felisa ahizpa bikiak ere. Gudarien praktikak sobrelatzen egiten zuen lan Felisak. "Bandoa jo zuten, etxe bakoitzetik bat bada ere joateko praktikak jostera". Baina Francotarrak Azkoitira iritsi aurretikoan ohartarazi zion ahizpak haiez esaten zirenez. "Nik ez neukan politikarik, baina esan zidan gure antzeko lanean zebiltzanez ilea moztu eta herriko kristal denak garbiarazten zizkietela, eta gero, soldaduak iristen zirenean, haiei entregatzen zizkietela haiek nahi zutena egin zezaten andrekin. Zortzi egunerako kontua izango zelakoan, aldatzeko barruko arropa bat ipini zidaten eta xemeinkorik gabe alde egin nuen etxetik. Sekula etxetik irten gabea nintzen aurretik". Markinara egin zuten ihes bost herrikidek kamioian sartuta, "bel-durrak akabatuta". Artean ez zekien, baina 18 urte egingo zituen etxetik kanpora, bizi hainbat urte. Etxez etxe ibiliko zen, baina denetan eta beti, kanpoko. Azkoitiar batek topatu zien aterpea Markinan eta han egin zuen denboralditxo bat, berriro ere ihesari eman aurretik. Gernikara jo zuen gero, osaba batek hala esanda, eta bi etxetan jardun zen han lanean. Bonbardaketak ere bertan

harrapatu zuen, baina beste askok izan ez zuten zortea izan zuen eta onik irten zen. Eta handik, Muskizera, Bilbora... Hamaika etxe ezagutu zituen, eta "miseria gorria" ere bai. Ihesean eman zituen urteak, "gerraren motiboak ezagutu ere egin gabe", eta amaituta gero ere ez zuen adorerik bildu sorterrira itzultzeko. "Ez zen giro, ez bueltatzeko esaten zidaten". Eta zerbitzatzen eman zituen ondorengo urteak, neskame, "esklabo antzera batzuetan".

Dirudunentzat lan egin zuen, trukean apenas dirurik irabazi gabe. "Ezer erosteko beste ere ez genuen irabazten. Bizimodu latza eduki dut, gerran eta ondorengo urteetan ere bai. Zerbitzen hasi nintzenean, hamaika komeria izaten nituen, señorekin ez bazen neskame 'lagunekin'. Dena zen inbidia, dena sufrimendua". Neskame aritu zen Bilbon, Donostian, eta baita Madrilen ere. Azkoitian txapel fabrika zuten Hurtado de Mendoza familiari zerbitzatzen egin zituen hamabi bat urte Madrilen. "Asko bizitzea tokatu zitzaigun".

33 urterekin iritsi zitzaion bizitzeko patxada, ezkontzeaz batera. "Ezkondu nintzenean ere, tinbre zarata entzuten nuen beti. Belarriko zuloan sartuta nituen nik señoren deiadarrak eta tinbre zaratak. Ezkontzea handia izan zen". Bakea itzuli zion ezkontzeak. Alabaz erditu zen Azkoitian, eta urtebetera Elgoibarren jarri ziren bizitzen. "Gizonak lan egiten duen lekua baino ederragorik ez dago bizitzeko". Sigman hasia zuen senarra lanean, eta geroztiko urte denak Elgoibarren egin ditu. "Izan, baina, azkoitiarra naiz ni!". Bizitzeko behar zuen dena topatu zuen Elgoibarren, baina giroa, hori bai, erdaldunegia aukeran. "Alaba eskolara hasi zenean dena erderaz egiten hasi zen eta egin nion errieta: 'Eh? Erdaraz? Kanean, egin nahi baduzu frantsesez, baina etxe honetan euskaraz beti! Hor huts egiten dugu orain. Etxean behar izen ez baditugu geurea zaintzera, akabo!. Amak ardura hori hartzen badu, eta berak egiten badio behintzat, euskaraz egingo du umeak ere".

OSASUN GOGORRA, LAGUNARTE APARTA

Nahi lukete askok Felisaren in-darra. "Neuk ere txarrago ikusten ditut asko", aitortu du. Atentzioa ematen du joaten den leku guztietan. Mugimendu azkarrekoa izan da beti. Ohetik jaikitzean jausi eta eskumuturra hautsi zuen orain hiru bat urte, eta haretxi kolpe egiten dio. "Hauxe zuzenduko balitz, hau hobeto balego...". Baina ez zaio traba kalerako. Eguraldi oneko egunetan beti egiten du lagunengana ostera. Maalaraino jaisten zen lehen, baina orain, auzoan ibiltzen da. "Lagunekin hizketaldi bat egin, eta gero, karta-jokora amorratuta". Telefonoz ere manten-

tzen du harremana beste lagun askorekin. "Sarri jotzen didate telefonoa lagunek, eta oso estimatua sentitzen naiz. Ahizpa eta biok Benidormera joaten ginen sasoiaren egindako Legazpiko lagunek ere lore-sorta bidali izan digute tabernara urtebetetzetan. Ahizparekin, berriz, ia egunero hitz egiten dut telefonoz. Estu ibiltzen gara elkarri entzun ezinda, baina askotan entzun beharrik ere ez dugu izaten besteak zer pentsatzen duen jakiteko". Harreman estua mantentzen dute Florak eta Felisak. Duela hiru bat urtera arte, abuztuko oporraldia ere elkarrekin igarotzen zuten Donostian, Floraren alaba baten etxean. Arratsaldero irteten ziren kafetegi batera, kafesnea hartzera - "bero-beroa beti, baita udan ere"- eta etxeko zituzten tabernakoek ere. "Ez zuten kanpoko mahaia-tara zerbitzatzen, baina guri beti ateratzen ziguten kanpora, eta oporretako lehenengoa kobratu ere ez ziguten egiten. Mahaian jartzerako ekartzen ziguten behar genuena".

Orain, 100 urte bete behar dituztela-eta, zorion-agurrak jaso eta jaso ari direla aitortu du, eta ezin du poza ezkutatu. "Arnasarik bada", 100. urtemuga ere bi familiak elkartu eta Azkoitian ospatuko zutela esan zigun opor aurretxoan, eta hala egin zuten. 30 lagun baino gehiago batu ziren mahai bueltara. "Erregalorik handiena horixe". Bi seme-alaba izan zituen Felisak eta bost Florak, eta nabarmen handitu da senitartea azkeneko urteotan. "Urtetik urtera gehiago gara, eta horrek ematen du poza".

80 urte bete arteko ospakizunak etxean egin zituzten, baina urteak bete aurreko asteetan kazolak eta lapikoak prestatzen ibiltzeaz nekatuta, 80. urtebetetzetako otordu handia tabernan egitea erabaki zuten, "azkena izango zelakoan". "Ahizpak proposatu zidan. Geuk ordainduko gurela esan zidan, baina tabernan batuko ginela. Jan, muturra garbitu, ordaindu, eta segi". Eta ordu-

koaz geroztik, beste hogeit urtean elkartu dira tabernan, eta izan daitezela beste urte askoan elkartzeko. "Urte asko gehiago ez ditut nahi nik e!", zuzendu gaitu. Egunean egunekoa bizi nahi du eta bizitzeko falta zaion denbora ahalik eta ondoen pasatzea. Sasoirik ez zaio falta, eta sekretuaz galdetu diogu. "Medikuek ere galdetu izan didate hori Mendaron. Ez dut nik apartekorik egin. Denetarik jan. Bete arte, baina; gehiago ez. Kafea hartzea ere gustatzen zait jatorduan, eta patxarrarekin hartzen dut. Tentsio baxukoa izan naiz ni beti, eta badakizu: tentsio baxua lapurra da. Makalaldia etortzen denean, *adios!* Hasi nintzen hartzen, eta orain gustatu. Baina medikuak berak ere esan zidan behin 80 urtera iritsita, ardo pixkat edatea ere ona zela, eta ardoa zenbat eta hobea izan gainera, hobeto zela".



Seilu erakusketa, pilota, umeentzako ekintzak eta musika San Antonetan



San Anton eguna urtarrilaren 17an bada ere, asteburuan hasiko dira jaiekin lotutako ekintzak. Zapatuan, urtarrilaren 13an seilu erakusketaren inaugurazioa egingo dute 12:30ean. Aurtengoa Mugertza krosaren eta Morkaikoren 75. urteurrenei eskaini diete. Egunean bertan gaiaren inguruko zigilu-markatzeko berezi bat egongo da. Guztira, 21 lagunek aurkeztuko dituzte beren bildumak eta gehiengoa emakumezkoak dira. Aurten, gainera, seiluez gain, intsigniak, fruituen etiketak, liburu markagailuak, edalontzi-azpikoak, egutegiak eta loteria-billeteak ere jarriko dituzte ikusgai taldeko kide zen eta orain dela gutxi zendu den Elena Cresporen omenez. Erakusketa astegunetan, 18:30etik 20:30era, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:30etik 20:30era izango da ikusgai Kultur Etxean. Hilaren 20an kolaboratzaileei opariak banatuko badizkiete ere, erakusketa urtarrilaren 21era arte egongo da.

Gauean kirolak hartuko du lekua. 22:00etan, San Anton pilota txapelketako final erdiak jokatu dituzte Ikastolako frontoian senior mailako pilotariek.

Musika eta jolasak

San Anton egunez, santuaren omenezko meza egingo da San Bartolome Parrokiako abesbatzak kantatuta. Musikak bestelako tokia ere izango du egunean bertan, izan ere, Maria Sedano Musikeneko ikasle ohiak eta Mariano Mangas gitarra joleak kontzertua eskainiko du 12:30ean Herriko Antzokian. Emanaldia Elgoibarko Musika eta Dantza Federazioak antolatutakoa da.

Bestalde, umeek ere izango dute festarako aukera. Parkea izango da goiz eta arratsaldez Kalegoen plazan eta Aita Agirre plazan (euria egingo balu, ikastolan). 17:30ean, berriz, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletek kalejira egingo dute dultzaineroekin.

Ongarri Zine Klubak Mugertza krosarekin bat egingo du 'Carros de fuego' filmaren emanaldiarekin

Ongarri Zine Klubak bat egin nahi du Mugertza krosaren 75. urteurrenarekin. Horretarako atletismoari eta olinpiar jokoei buruzko *Carros de fuego* filma mitikoa emango dute urtarrilaren 18an, egunean, 20:30ean, doan, Herriko Antzokian. Pariseko olinpiar jokoentzako prestatu ziren britainiar atleten bizimodua kontatzen du eta Vangelis musikariaren soinu bandak ere eza-gun egin zuen filma. Pariseko jokoetako filma izan arren, Elgoibarren ere izan da atleta olinpikorik. Juan Muguerza bera, 1920an Amberesen, 1.500 eta 5.000 metroko lasterketetan aritu zen eta ez zen elgoibartar bakarra izan, Inazio Izagirrek ere parte zuen, pisu jaurtiketan.

Keu Agirretxeak eta Jon Gurrutxagak Elgoibarren bukatuko dute 'Izanak' bira

Elgoibarko Jon Gurrutxaga eta Ondarroako Keu Agirretxea musikariak zuzenekoetan eta diskoetan elkarri lagunduz aritu ondoren, apirillean *Izanak* kantua argitaratu zuten batera. Ondoren biran aritu dira bikote moduan Euskal Herrian barrena eta bira barixakuan, urtarrilaren 19an, amaituko dute Elgoibarren, Herriko Antzokian, 20:30ean. Sarrerak bost euroan aurrez eros daitezke Kutxabanken bitartez eta bestela lehiatilan egunean bertan.

Zeramika ikastaroa antolatu du Egur arte tailerrak

Egur arte tailerrak zeramika ikastaroa antolatu du heldu eta umeentzat. Urtarrilaren 24tik martxoaren 21era arte, eguaztenetan 17:00etatik 19:00etara bitartean izango dira eskolak. Hilabetean 20 euro ordaindu behar dira. Urtarrilaren 20a baino lehen eman behar da izena zenbaki honetara deituta: 666 557 538.

Sanloko hamar jokalarik hartu dute parte Espainiako Eskubaloi Txapelketan

Eskubaloi ligek etena izan dute Eguberrietan, baina Sanloko hainbat jokalarik ez dute atsedenik izan. Galizian urtarrilaren 2tik 7ra jokatu duten Federazio Autonomikoen Espainiako Eskubaloi Txapelketan hartu dute parte Sanloko hamar jokalarik Euskadiko selekzioekin. Julen Urruzolak lortu du guztietan emaitzarik onena, kadete mutilen euskal selekzioarekin hirugarren postuan sailkatu baitzen. Miren Armentiak eta Maddi Goñik ere eskura izan zuten brontzezko domina, baina laugarren postua eskuratu zuten; infantil nesken taldearekin lehenak eta kadete nesken selekzioarekin bigarrenak. Markel Orbeak eta Aitor Altzerrekak infantil mutilen taldean jokatu zuten eta 9. postua lortu. June Loidi eta Nahia Legorburu, berriz, 6. postuan sailkatu ziren jubenil nesken taldearekin. Azkenik, Asier Urain, Oscar Gonzalez eta Kimetz Bergaretxe. 9. postuan sailkatu ziren jubenil mutilen taldearekin. Era berean, Sanlo Eskubaloi Eskola ere martxan izan da Eguberrietan eta 100 ume inguruk hartu du parte Neguko kanpian. Sanloko arduradunek balantze oso positiboa egin dute eta entrenatzaile guztiek eginiko "lan ona" nabarmendu dute eta eskerrak eman dizkiete laguntza eman dieten lagun guztiei, baita txapelketak jokatu zituzten egunetan zukuak eta esne opilak banatu zituztenei ere.



Henrik Teskek irabazi zuen du Elgoibarko Maisuen Nazioarteko Txapelketa

Zazpi eguneko lehia estua eta gero, Henrik Teske xakelari alemaniarra izan zen erregularrena Elgoibarko 27. Maisuen Nazioarteko Txapelketan. Teskek sei puntu lortu zituen jokaturako bederatzi partidetan. Milos Stankovic serbiar gazteak egin zuen bigarren, 5,5 punturekin eta Indiako Srinath Narayanan sailkatu zen hirugarren bost punturekin.



San Anton pilota txapelketako nagusien finalerdiak jokatuko dituzte zapatuan, Ikastolako frontoian



Lagunak Pilota Eskolak antolatzen duen San Antonetako 27. Pilota Txapelketako senior mailako finalerdiak jokatuko dituzte zapatuan, urtarrilaren 13an, Ikastolako frontoian (22:00etan hasita). Lehen neurketan Peru Labaka eta Aranguren Alberdiren eta Aizpururen aurka lehiatuko dira. Bigarrenean Quinak eta Arratibelek osatutako bikoteak Atxotegik eta Olaizolak osatutakoaren aurka jokatu du. Joan den abenduaren 29an jokatu zituzten promesa mailako bi finalerdiak. Lehenengoan Karregalek eta Artolak osatutako bikoteak 22 eta 20 irabazi zion Ruiz de Larramendiri eta Garmendiari. Bigarren kanporaketan, Alberdik eta Apezetxeak 22 eta 19 irabazi zieten Agirreamalloari eta Olideni. Hortaz, Karregalek eta Artolak jokatu dute finala Alberdiren eta Apezetxearen aurka. Urtarrilaren 19an, barixakuan, izango da finala.

LANA.....

Eskaerak

Zaintza edota garbiketa lanetan aritzeko prest. Goizez edo arratsalde. Esperientzia. (Silvia).

☎ 655 094 780

Pertsona helduak zaintzeko prest nago, esperientzia eta erreferentziak dauzkat.

☎ 631 620 344

Asteburuetan pertsona helduak zaintzeko prest nago. Erreferentziak dauzkat.

☎ 648 039 187

Pertsona helduak zaintzeko prest nago. Interna moduan aritzeko prest.

☎ 615 580 970

Garbiketa lanetarako eta adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritzeko prest.

☎ 603 237 932

Garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan eta orduka aritzeko prestutasuna.

☎ 629 872 270

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Gavez eta interna aritzeko prestutasuna.

☎ 688 738 823

Adineko pertsonak zainduz egingo nuke lan.

☎ 622 554 873

Pertsona adinekoak zaintzeko prest.

☎ 633 563 546

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Orduka, gavez edota ospitaletan aritzeko prestutasuna dut.

☎ 602 490 595

Batxilerreko gaztelaniako eskola partikularrak emateko prest dagoen norbaiten bila nabil.

☎ 676 975 483

Lehen mailako Batxiler teknologikoko klase partikularrak emango lituzkeen pertsona baten bila nabil.

☎ 637 413 731

BESTELAKOAK.....

Klase partikularrak emateko irakaslea behar dut, emakumezkoa. DBH 2. Mailako irakasgai guztiak irakasteko.

☎ 616379009

**LAN-POLTSA:
BARREN ASTEKARIA**

Ordezkapenak egiteko lan poltza osatzen ari gara (kazetaria, komertziala eta maketatzailea). Interesatuak curriculum vitae-a helbide honetara bidal dezakezue:

barren@elgoibarkoizarra.eus
Kalebarren plaza, 2. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112



BARREN

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

RPS 10312

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

BEHERAPENAK
eguzkitako betaurrekoetan eta graduatuetan

%10 etik **%50** era bitartean

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Administrazioaren Erakunde Ekonomikoa



**ROSA M^a
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Bizi naizen eraikinean atezaindegi etxebizitza bat dago. Saldu, alokairuan eman edo trastelekurik egin daiteke hor?

Atezaaindegiak etxebizitza komuna izanik, ez du eragozten orain arte izan duen erabilera aldatzea, baldin eta batzar orokorrean erabakitzen bada. Batzarrean erabaki daiteke eskualdatzea edo alokairua. Baina hartzen den erabakiaren arabera araudiak eskatuko du jabe kopuru batek gutxienez onartzea.

Salmenta baldin bada -bai eraikineko jabeak zein besteren bati- erabakiak guztien adostasuna izan behar du titulu osagarria aldatu behar baita. Alokatzekotan nahikoa da jabeak bostenaren herenak onartzea.


Etxebizitza zatikatu eta trasteleku bihurtu nahi badira dena banaketa horren ondorioen arabera izango da. Hau da, ondorio juridikorik ez badu, -esaterako, tabike bat egitea eraikinaren osotasunean eraginik izan gabe-, nahikoa da jabeen bostenaren herena ados egotea.

Aholkua: etxebizitza zatikatu eta, bakarra zegoen lekuan finka bananduak sortuz, efektu juridikoak lortu nahi badira, beharrezkoa izango da jabe guztien adostasuna.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak **Udane**, urtarrilaren 5ean urte bete zenuelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak **Julen**, urtarrilaren 13an 4 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat etxeko danon partez.



Zorionak **Telmo**, urtarrilaren 11n 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Zorionak **Ander**, astelehenean 3 urte bete zenituelako. Muxu asko etxekoen partez.



Zorionak **Sare**, igandean 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak bitito, a b e n d u a r e n 30ean 4 urte bete zenituelako. Muxuak familia guztien partez, bereziki Mikel eta Nerea.

Eibar
Coworking
eibarcoworking@gmail.com
688 734 292

RGPD jardunaldia

Gure pribatutasuna babesteko
erronka berria!

Eduard Domingok, SEGURDADES
enpresako datu babesean adituak
gidatuko du jardunaldia.

Enpresa txikiei zuzendua.

URTARRILAK 18
10:30-12:00
Eibarko txikito, 8 behea.



Ines Mendikute Muguruza

"Txarriduna"


2018ko urtarrilaren 10ean hil zen, 88 urte zituela. Hileta elizkizuna gaur, urtarrilak 12, izango da, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertzea.



Justa Muñoz Gustin

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.**

2018ko urtarrilaren 10ean hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



12 BARIXAKUA

20:00 Juan Muguerza 75 urte gala. Herriko Antzokian.

13 ZAPATUA

10:30 Haurren atletismo jaia.

19:30 LXXV. Juan Muguerza Nazioarteko Kroseko korrikalariei harrera, Udaltexean.

14 DOMEKA

10:00 LXXV. Juan Muguerza Nazioarteko Krosa. Mintxetan.

17 EGUAZTENA

Parrokiako jaiotzaren azken eguna. As-telehenetik barixakura, 17:30etik 20:30era. Zapatu eta jaiegunetan, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era. San Bartolome parrokian.

19:00 *Sororitatea lantzen* irakurketa saioa. Mendaroko liburutegian.

19 BARIXAKUA

18:30-20:30 Odol ematea. Elgoibarko Odol emaileen elkartean (Osasun Zentroaren ondoan).

20:30 Kontzertua: Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxea. Herriko Antzokian.

21:30 Bideo foruma: *Hysteria*, Loredi Salegik gidatua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

SAN ANTON JAIAK

Urtarrilak 13,17 eta 20

13 ZAPATUA

12:30 XXXVIII. Seilu erakusketa-
ren inaugurazioa. Mugertza kro-
saren eta Morkaikoren 75.
mendeurrenei eskainia. Ordute-
gia: astegunetan, 18:30etik
20:30era. Jaiegunetan,
12:00etatik 14:00etara, eta
18:30etik 20:30era. Kultur
Etxeko erakusketa gelan. Urtarrila-
ren 21era arte.

22:00 San Anton pilota txapel-
keta. Ikastolako frontoian. Antola-
tzaileak: Lagunak Pilota Eskola eta
Udal Kirol Patronatua.

17 EGUAZTENA

San Anton Eguna

11:00 Meza nagusia, Parrokiako
abesbatzak abestua.

11:30-14:00 eta
16:30-19:30

Umeentzako parkea. Kalegoen pla-
zan eta Aita Agirre plazan (euria
egingo balu, Ikastolan).

12:30 Kontzertua: Maria Sedano
abeslaria eta Mariano Mangas gi-
tarra jolea. Herriko Antzokian. An-
tolatzailea: Emudafe.

17:30 Erraldoi, buruhandi eta ze-
zenzikleten kalejira, Herriko Dultzai-
neroein.

19 BARIXKUA

22:00 San Anton pilota txapel-
keta. Ikastolako frontoian. Antola-
tzaileak: Lagunak Pilota Eskola eta
Udal Kirol Patronatua.

20 ZAPATUA

11:00 Filatelia Elkartetako Eus-
kal Federazioaren lehen asan-
blada. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13:00 Seilu erakusketako kolabo-
ratzaileei opariak banatzea. Kultur
Etxean.

Zinea (Herriko antzokian)

Perfectos desconocidos

12 barixakua 21:30

13 zapatua 19:00-22:15

14 domeka 19:00

15 astelehena 21:30

17 eguaztena 19:00



Zinetxiki zinemaldia

14 domeka 16:30

4 urtetik gorako haurrentzako
laburmetraiak



Carros de fuego

18 eguena 20:30

(Ongarri Zine Kluba)



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
12 BARIXAKUA	13 ZAPATUA	14 DOMEKA	15 ASTELEHENA	16 MARTITZENA	17 EGUAZTENA	18 EGUENA	19 BARIXAKUA
Egunez Barrenexea	Egunez Ibañez * Yudego	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesgasti
Iluntzean Barrenexea	Iluntzean Ibañez	Iluntzean * Ibañez	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean * Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesgasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gaez: 22:00-09:00
La Fuente
Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Abenduan hildakoak

<ul style="list-style-type: none"> • Angeles Sebastian Garcia 84 urte, abenduak 6 • Maria Del Carmen Santaren Gala 93 urte, abenduak 7 • Manolo Untzilla Ondarre 93 urte, abenduak 8 • Sabino Lizarralde Txurruka 96 urte, abenduak 10 • Eduardo Bereciartua Arrillaga 71 urte, abenduak 15 	<ul style="list-style-type: none"> • Emilia Herrero Fernandez 70 urte, abenduak 17 • Rosa Herrero Estarta 91 urte, abenduak 21 • Yolanda Gabilondo Mendizabal 84 urte, abenduak 26 • Amando De la Serna Del rio 84 urte, abenduak 27 • Pakita Askasibar San Martin 84 urte, abenduak 31
---	---



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Julen Ansola



Irati Agirrezaldegi



Federico Mocchiaren nobela bateko bi protagonista, beraien izenekin giltzarrapo bat grabatzen duten bi artista. Zubi batean kateatu eta elkarri musu eman ostean, uretan galtzen da giltzaren pista, baina ongi lotuta lagata

ezin dira elkarren arteko maitasuna haustera arriska.

Maitasuna eta maitemina, nahia eta ezina, giltzarrapoak zubituan lotze horren modak ez ote du bat baino gehiago engaina? Maitasuna askok uste arren batzuetan ez baita betirako, alajaina.

Giltzarrapoarekin lotu arren biren arteko maitasunaren katea baliteke beste maitasun guztiei ixtea norbere bihotzeko atea; eta gure maitasuna beste edozeini edo edozeri eman nahi eta ezin ematea.

Maitasunak ez al du behar askatasuna nahiz eta askotan izan musu bidez aho itxiarekin irudikatzen duguna?

Hitza da maiz bihotzaren giltza, baina asko eta asko beste horrenbesteren berbak kateatuz dabilta. Beraz, zein da bihotzaren ahoa katez lotu, giltzarrapoa itxi eta giltza hori bota edo maliziaz gorde duen horri aurre egiteko baldintza?

Orotariko giltza lortzea litzateke maitasunari atea ixten dizkion katea eteteko irtenbidea. Izan ere, orotariko maitasuna da hartu behar genukeen norabidea. Maite behar dugu bikotea, herria, hizkuntza, laguna, ahaidea... Izan ere, horiek guztiek maitatze hutsak ekarriko dizkigu guri milaka askatasun izpi eta maitasun idea.

Katearen giltzarrapoari segika lagunok orain dela gutxi horrelako moda betetzen duen zubi batera iritsi gara, baina ez dugu horrelako giltzarraporik han kateatu, hara! Zubia gurutzatu eta askatasunean, lagun artean askatu dugu makina bat algara. Nola lotu baina gure maitasuna askatasunean hobeto sentitzen bada?

“Hitza da maiz bihotzaren giltza”



San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535

URTERO BEZALA, BITXIDENDAN ZOZKETA EGIN DUGU.
ZENBAKI IRABAZLEAK ETA ORDEZKOAK HAUEK DIRA:

1. SARIA

250 €-ko

bonua bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 2.516

Ordezko zbkia.: 2.009

2. SARIA

250 €-ko

bonua bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 0048

Ordezko zbkia.: 2.902



IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HH 0 (2017an eta 2018an jaiotakoak), otsailtik ekainera
hasteko, matrikulazio aldia zabalik urtarrilaren 15etik 26ra



elgoibar ikastola



www.elgoibarikastola.eus

943 744441

IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera urtarrilaren 15ean, 18:00etan



**KGN33NW3A
BOSCH COMBI**

176 x 60x 66 cm

A++

Hartz marka kontrako altzairua

Txuria

449€



**WAB20066EE
BOSCH GARBIGAILUA**

A+

5,5KG

1000 R.P.M.

289€

**APARTEKO
ASTEAK**

**MILAR
BIRE**

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

Dendako prezioak.
Produktuak agortu arte.

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrofaiurgintza.com
www.pagoerrofaiurgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskafnet.net



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimare@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

IGELTSEKITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarrakin ere
lan egiten dugu.



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

Gremioen gida